eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

# HIZKUNTZA EZ-OFIZIALEN IRAKASKUNTZA BAIMENTZEKO 2020/2021 IKASTURTERAKO DEIALDIA

# CONVOCATORIA PARA LA AUTORIZACIÓN DE DOCENCIA EN LENGUAS NO OFICIALES PARA EL CURSO 2020/2021

BASQUE UNIVERSITY SYSTEM
INTERNATIONALIZATION

**ERABAKIA, 2019ko ABENDUAREN 20koa, KOORDINAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDETZARENA, HIZKUNTZA EZ-OFIZIALEN IRAKASKUNTZA BAIMENTZEKO 2020/2021 IKASTURTERAKO DEIALDIA EGITEKOA.**

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren helburu nagusietako bat da gure unibertsitateko ikasketak nazioartekotzea. Horretarako, graduen eskaintza eleaniztuna sustatu nahi du, bai UPV/EHUko ikasleentzat eta bai ikasle bisitarientzat.

Hori lortzeko, ezinbestekoa da ingelesez (edo, bestela, frantsesez) ematen diren irakasgaiak finkatu eta gehitzea UPV/EHUko gradu guztietan. Horretarako, deialdi honen xedea da ikastegiei aukera ematea hizkuntza ez-ofizial horietan irakasgai gehiago eskaintzeko.

Helburu horrekin batera, ikastegiei Eleaniztasun Planeko irakasgaiak lehendabiziko urteetan ezartzen laguntzeari begira, aurreikusten dugu aldi baterako irakasle-ikertzaileak kontratatzea, beren gain har dezaten atzerriko hizkuntzetan baimendutakoaren pareko irakaskuntza hizkuntza ofizialetan. Irakasgaiak baimentzeak ez du esan nahiko, inolaz ere, aldi baterako plaza horiek automatikoki emango direnik.

Deialdi honetako gastu muga aurrekontuaren araberakoa izango da, eta gerta liteke baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerek finantzaziorik ez lortzea.

Bestalde, ikastegiek hizkuntza plangintza egokia eta iraungarria izan beharko dute. Beraz, behin ingelesezko (edo frantsesezko) irakasgaien eskaintza finkatuta, konpromisoa izango dute irakasgaiok beren baliabideekin ematen jarraitzeko, baldin eta behar beste ikasle matrikulatzen badira.

Adierazitako helburuak gogoan izanik, ERABAKI DUT deialdi hau onartzea honako oinarri hauen arabera

**RESOLUCIÓN DEL 20 DE DICIEMBRE DE 2019 POR LA QUE SE REALIZA LA CONVOCATORIA PARA LA AUTORIZACIÓN DE DOCENCIA EN LENGUAS NO OFICIALES IMPULSADA POR EL VICERRECTORADO DE COORDINACIÓN Y RELACIONES INTERNACIONALES PARA EL CURSO 2020/2021.**

El Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales cuenta entre sus objetivos prioritarios impulsar la internacionalización de la formación a través de la promoción de una oferta de grado plurilingüe dirigida tanto al alumnado de la UPV/EHU como a los y las estudiantes visitantes.

Para alcanzar este objetivo es indispensable consolidar e incrementar el número de asignaturas impartidas en inglés (o, en su defecto, en francés), en todos los Grados de la UPV/EHU. Por ello, la presente convocatoria tiene por objeto autorizar a los centros la posibilidad de incrementar su oferta de asignaturas en estas lenguas no oficiales.

Junto a este propósito, se contempla apoyar la impartición de asignaturas relativas al Plan de Plurilingüismo mediante la contratación de PDI transitorio que asuma la docencia en lenguas oficiales equivalente a la autorizada en lenguas extranjeras, con el fin de ayudar a los centros en los primeros años de implementación de dichas asignaturas. En ningún caso, la autorización de las asignaturas implicará la concesión automática de dichas plazas transitorias.

El límite de gasto para la presente convocatoria quedará sujeto al presupuesto disponible, pudiendo no obtener financiación solicitudes que cumplan con todos los requisitos.

Asimismo, los centros deberán contar con una planificación lingüística adecuada y sostenible en el tiempo, por lo que deberán comprometerse a, una vez consolidada la oferta de la/s asignatura/s en inglés (o francés) y, siempre que el número de matriculaciones sea suficiente, seguir impartiéndola/s con recursos propios.

Conforme a los objetivos expuestos RESUELVO aprobar la presente convocatoria que se ajustará a las siguientes:

**OINARRIAK**

**1.- BAIMENAREN MODALITATEAK ETA MUGAK .......... 2**

**2.- BAIMEN ESKAERA**
**2.1 Irakasgai blokeen eskaera .......... 3**
**2.1 Irakasgai solte berrien eskaera .......... 4**

**3. IRAKASGAIEN ONARPENA .......... 5**

**4.- IRAKASGAIEN JARRAIPENA .......... 5**
**4.1 Irakasgai blokeak .......... 6**
**4.2.- Irakasgai solteak .......... 6**

**5.- BAIMEN ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA .......... 6**

**6.- BAIMENEN EBAZPENA .......... 7**

**7. – IRAKASGAIEI ALTA EMATEA .......... 8**

**8.- ALDAKETA ETA BAJA ESKAERA .......... 8**

**9.- ALDI BATERAKO PLAZEN ESKAERA LIBERAZIOAREN KARGURA .......... 9**

**9.1 Eskaeren lehenespena .......... 10**

**9.2 Eskaerak aurkezteko epea eta era .... 10**

**BASES**

**1.-MODALIDADES Y LÍMITES DE LA AUTORIZACIÓN .......... 2**

**2.- SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN**
**2.1.-Solicitud de bloques de asignaturas .......... 3**
**2.2.-Solicitud de asignaturas independientes ..4**

**3. ADMISIÓN DE ASIGNATURAS .......... 5**

**4.-CONTINUIDAD DE LAS ASIGNATURAS .......... 5**
**4.1.- Bloques de asignaturas .......... 6**
**4.2.- Asignaturas independientes .......... 6**

**5.- PLAZO Y FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES DE AUTORIZACIÓN .......... 6**

**6.-RESOLUCIÓN DE LAS AUTORIZACIONES ......7**

**7. -ALTA DE LAS ASIGNATURAS .......... 8**

**8.-SOLICITUD DE CAMBIOS Y BAJAS DE LAS ASIGNATURAS .......... 8**

**9.-SOLICITUD DE PLAZAS TRANSITORIAS CON CARGO A LA LIBERACIÓN .......... 9**

**9.1. Priorización de las solicitudes .......... 10**

**9.2. Plazo y forma de presentación .......... 10**

## 1.- BAIMENAREN MODALITATEAK ETA MUGAK

2020/2021 ikasturtean graduko eskolak hizkuntza ez-ofizial batean (ingelesez edo frantsesez) eskaini nahi dituzten ikastegiek baimen eskaera aurkeztu beharko dute Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzan.

Ikastegiek irakasgai blokeak edo irakasgai solteak eskatu ahal izango dituzte, baina errektoreordetzak gomendatzen du sailekin elkarlanean hizkuntza plangintza bat antolatzea irakasgai blokeak sortzeari begira, hartara ikasleek gutxienez 30 kreditu egin ahal izan ditzaten gradu bakoitzean.

Ikasketa planean hizkuntza ofizialez gain ingelesez edo frantsesez baimenduta agertzen diren irakasgaiak bloke moduan bakarrik aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara.

## 1.- MODALIDADES Y LÍMITES DE LA AUTORIZACIÓN

Los centros que deseen ofertar docencia en Grado en una lengua no oficial (inglés o francés) en el curso 2020/2021 deberán realizar la solicitud de autorización al Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales.

Los centros interesados podrán optar por solicitar asignaturas agrupadas en bloques o de forma independiente, si bien desde el Vicerrectorado se recomienda efectuar, en colaboración entre los departamentos, una planificación lingüística que potencie la creación de bloques de asignaturas a fin de permitir al alumnado la realización de un número mínimo de 30 créditos en cada Grado.

Las asignaturas que, en el plan de estudios, además de figurar en los idiomas oficiales, están autorizadas para impartirse en inglés o francés, podrán presentarse a esta convocatoria sólo como parte de

un bloque.

Honako hauek deialdi honetatik kanpo geratzen dira: graduondoko irakasgaiak, graduko ikasketa planean hizkuntza ez-ofizial bakarrean onartutako irakasgaiak, Gradu Amaierako Lana edo Practicuma.

En ningún caso podrán presentarse a esta convocatoria asignaturas de Posgrado, asignaturas admitidas en el plan de estudios de Grado para su impartición en una sola lengua no oficial, ni asignaturas correspondientes a Trabajo de Fin de Grado o Prácticas.

Eskaera egin aurretik, ikastegiak ezinbestean ziurtatu beharko du irakasgaia emango duen irakasleak C1 mailaren akreditazioa duela kasuan kasuko hizkuntzan, eleaniztasun gaietan eskumena duen errektoreordetzak emanda, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuaren arabera.

De manera previa a la realización de la solicitud, es condición indispensable que el Centro se asegure de que el o la docente que impartirá la asignatura en el idioma correspondiente está acreditado/a por el Vicerrectorado competente en materia de Plurilingüismo, con el nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas.

Errektoreordetzak irakasgai blokearen eskaera onartzeak ez du esan nahi aldi baterako plaza bat emango denik. Batetik, ikastegiak Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzan aurkeztu behar du *eskolak emateko baimen eskaera* eta, bestetik, beharrezkotzat joz gero, sailak Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzan aurkeztu beharko du *aldi baterako plazen eskaera liberazioaren kargura* (ikus agiri honetako 8. puntua: *Aldi baterako plazen eskaera liberazioaren kargura*).

La aceptación de la solicitud de *bloque de asignaturas* por parte del Vicerrectorado, no implica, en ningún caso, que vaya a ser concedida una plaza transitoria. Por un lado, el Centro deberá realizar la *solicitud de autorización para impartir la docencia* al Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales y, por otro, en el caso de que así lo considerase necesario, el Departamento deberá realizar la *solicitud de plazas transitorias con cargo a la liberación* ante el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales (ver el punto 8. *Solicitud de plazas transitorias con cargo a la liberación* del presente documento).

## 2.- BAIMEN ESKAERA

### 2.1 Irakasgai blokeen eskaera

Irakasgai blokeen bi mota daude: maila blokea edo eduki blokea. Kasu batean zein bestean, bloketzat jotzeko, irakasgaiak gradu, campus eta ikastegi berean eman beharko dira, baita hizkuntza berean ere (ingelesean edo frantsesean):

- Maila blokea: maila berean ematen diren gradu bereko irakasgaiek osatzen dute.
- Eduki blokea: osatzen dute maila batetik bestera hedatzen den edukia duten graduko irakasgaiek, edo aipamen edo ibilbide bereko irakasgaiek.

Blokeak 30 kreditu izateko adina irakasgaiz osatuta egon beharko dira.

Hala ere, bloke bat lehen aldiz eskatzen denean, osatugabea izan daiteke (gutxienez, hiru irakasgaiz edo 18 kredituz osatutakoa).

## 2.- SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN

### 2.1. Solicitud de bloques de asignaturas

Existen dos tipos de bloques de asignaturas: de curso o de contenido. En ambos casos, para tener la consideración de bloque, las asignaturas que lo componen deberán impartirse en el mismo Grado, Campus y Centro, así como en el mismo idioma (inglés o francés):

- Bloque de curso: se compone de asignaturas de un mismo Grado que se imparten en el mismo curso.
- Bloque de contenido: se compone de asignaturas de un mismo Grado cuyo contenido se extiende de un curso a otro o que forman parte de una Mención o Itinerario.

Los bloques deberán estar compuestos por las asignaturas necesarias para sumar 30 créditos.

No obstante, la primera vez que se solicita un bloque podrá estar incompleto (formado por un mínimo de 3 asignaturas o 18 créditos). En ese caso, si se quiere

Kasu horretan, hurrengo deialdietan bloke izendapenari eutsi nahi izanez gero, behar adina irakasgai sartu beharko dira blokea osatzeko.

Irakasgai bloke bat egiteko eskaera aurkeztean, ikastegiak baimen eskaerak konpromiso bat dakar berekin, hots, ikastegiak eta sailak mantendu egin behar dute, eskaeran eskatutako ikasturtean, blokea osatzen duten irakasgai guztiak irakasteko konpromisoa. Hori dela eta, sailak baja ematen badio irakasgai bati nahiz eta jarraitzeko adina matrikula izan, ezin izango da irakasgai hori berriz eskatu gutxienez bi ikasturte igaro arte, eta eskaria onartzeko ala ez, kontuan hartuko da zelakoa den eskaintza talde horretan orotara, hizkuntza guztietan.

I. ERANSKINA da irakasgai blokeak eskaintzeko ikastegiak bete behar duen agiria, inplikatutako sailek onespena emanda. Eranskin horretan blokea osatzen duten irakasgai guztiak jasoko dira, blokean lehen aldiz eskainitako irakasgaiak izan nahiz aurreko deialdietan ere bloke horretan eskainitakoak izan, blokerako baimen eskaera urtero berritu behar baita. (ikus agiri honetako 3. puntua: Irakasgaien jarraipena).

mantener la denominación de bloque en convocatorias posteriores, se deberán incluir en la solicitud las asignaturas necesarias para completarlo.

La solicitud de autorización para un bloque de asignaturas implica el compromiso, por parte del Centro y del Departamento, de mantener durante el curso para el que se realiza la petición, la docencia de todas las asignaturas que lo componen. Por ello, cuando el Departamento haya dado de baja una asignatura con matriculaciones suficientes para su continuidad, la asignatura no será admitida ni podrá ser solicitada de nuevo hasta que hayan pasado un mínimo de dos cursos estando su aceptación supeditada al análisis de conjunto de la oferta docente en el mismo grupo en todos los idiomas de impartición.

El ANEXO I es el documento que debe cumplimentar el Centro, con la conformidad del/los departamento/s implicado/s, para solicitar la oferta de BLOQUES de asignaturas. En dicho anexo se deberán reflejar todas las asignaturas que configuran el bloque, tanto si son asignaturas que se ofertan por primera vez dentro del mismo como si son asignaturas que ya han formado parte de ese Bloque en convocatorias anteriores, dado que la solicitud de autorización para un bloque deberá renovarse anualmente (ver el punto *3. Continuidad de las asignaturas* en este documento).

## 2.2 Irakasgai solte berrien eskaera

Irakasgai solte bat eskatzeak konpromisoa dakarkie ikastegiari eta sailari irakasgai hori lau ikasturtean ematen jarraitzeko, baldin eta bere irakats ahalmenak horretarako aukera ematen badu, eta gutxieneko ikasle kopurua matrikulatzen bada.

Ezin izango dira irakasgai solte moduan eskatu ikasketa planean ingelesez edo frantsesez emateko bezala agertzen diren irakasgaiak.

II. ERANSKINA da IRAKASGAI SOLTE BERRIAK eskaintzeko ikastegiak bete behar duen agiria, inplikatutako sailek onespena emanda.

Aurreko deialdietan onartutako eta etengabean eman diren irakasgai solteen kasuan, ikus 4. puntua: *Irakasgaien jarraipena.*

## 2.2. Solicitud de asignaturas independientes

La solicitud de una asignatura independiente, implica el compromiso de mantener la docencia de la asignatura durante 4 cursos. por parte del Centro y del Departamento, siempre que su capacidad docente lo permita, y se cumplan los mínimos de matriculación.

En ningún caso se podrán presentar como asignaturas independientes aquellas que figuran en el plan de estudios con idioma de impartición inglés o francés.

El ANEXO II es el documento que debe cumplimentar el Centro interesado, de conformidad con el/los departamento/s implicado/s, para solicitar la oferta de NUEVAS ASIGNATURAS INDEPENDIENTES.

En el caso de asignaturas independientes admitidas en convocatorias anteriores que se hayan impartido ininterrumpidamente ver el punto *4. Continuidad de las asignaturas.*

## 3. IRAKASGAIEN ONARPENA

Lehen aldiz eskatzen diren oinarrizko edo nahitaezko irakasgaiak onartzeko ala ez, kontuan hartuko da zelakoa den irakasgai horretako matrikulazioa orotara, hizkuntza guztietan.

Hautazko irakasgaien kasuan, ikastegiak eta sailak hizkuntza ez-ofizial bakar batean (ingelesez edo frantsesez) proposatu ahal izango dituzte.

Irakasgai bat aurreko deialdietan onartua izan arren eman ez baldin bada sailak baja eman diolako ikasle gutxiegi matrikulatu zirelako, deialdi honetara aurkeztu ahal izango da, baina onartzea ala ez onartzea erabakitzeko kontuan hartuko da zelakoa den irakasgai horretako matrikulazioa orotara, hizkuntza guztietan, eta zelako aldaketak egin zaizkion ikasle gehiago erakartzeko.

Errektoreordetzak baja eman badio irakasgai bati behar beste ikasle matrikulatu ez direlako, edo, ematen jarraitzeko adina ikasle matrikulatuta egon arren, sailak bere erabakiz baja eman badio, irakasgai hori ezin izango da berriro eskatu harik eta bi ikasturte igaro arte bera eman barik. Era berean, onartzea ala ez erabakitzeko, kontuan hartuko da zelakoa den irakasgai horretako matrikulazioa orotara hizkuntza guztietan, eta zelako aldaketak egin zaizkion ikasle gehiago erakartzeko.

## 3. ADMISIÓN DE ASIGNATURAS

En el caso de asignaturas básicas u obligatorias que se soliciten por primera vez, su autorización estará supeditada al análisis conjunto de la matriculación en dicha asignatura en todos los idiomas de impartición.

En el caso de asignaturas optativas, se recuerda que, el centro y el departamento podrán plantear la impartición de la asignatura únicamente en una lengua no oficial (inglés o francés).

Cuando una asignatura, habiendo sido admitida en convocatorias anteriores, no se haya impartido por haber sido dada de baja por parte del departamento debido a que el número de matriculaciones era inferior al mínimo requerido para su continuidad, podrá presentarse a la presente convocatoria, si bien su aceptación estará supeditada al análisis conjunto de la matriculación en dicha asignatura en todos los idiomas de impartición y de las modificaciones que se hayan introducido para atraer un número mayor de estudiantes.

Cuando una asignatura haya sido dada de baja por parte de este Vicerrectorado por no haber alcanzado el número mínimo de matriculaciones o cuando teniendo las matriculaciones necesarias para su continuidad, la asignatura haya sido dada de baja de manera voluntaria por el Departamento; dicha asignatura no será admitida ni podrá ser solicitada hasta que hayan pasado dos cursos sin ser impartida. Asimismo, su aceptación estará supeditada al análisis conjunto de la matriculación en dicha asignatura en todos los idiomas de impartición y de las modificaciones que se hayan introducido para atraer un número mayor de estudiantes.

## 4. IRAKASGAIEN JARRAIPENA

Irakasgaiak eskaintzen jarraitzeko baimena emateko, hala bloke bateko irakasgaiak badira nola irakasgai solteak badira, aurreko ikasturteetako matrikulazioa hartuko da kontuan.

2019/20 ikasturtean hamar ikasle edo gehiago matrikulatu badira, errektoreordetza honek baimena emango du irakasgaia eskaintzen jarraitzeko.

2019/20 ikasturtean matrikula kopurua hamarretik beherakoa izan bada, baina ez zazpi baino txikiagoa, baimena azken hiru (edo, ezin bada, azken bi) ikasturteetako

## 4. CONTINUIDAD DE LAS ASIGNATURAS

La autorización para la continuidad de las asignaturas, tanto si forman parte de un bloque como si son independientes, dependerá de las matriculaciones de cursos anteriores.

Cuando el número de matriculaciones haya sido igual o superior a 10 en el curso 2019/2020, este Vicerrectorado autorizará su continuidad.

Cuando el número de matriculaciones haya sido inferior a 10 en el curso 2019/2020, y siempre que no haya sido inferior a 7, su continuidad será valorada en función de la media de matriculaciones de los

matrikulen batez besteko kopuruaren arabera emango da, eta, horretaz gain, aztertuko da nolakoa den matrikulazioa orotara, hizkuntza guztietan.

últimos tres cursos (o en su defecto, dos) y del análisis conjunto de la matriculación en dicha asignatura en todos los idiomas de impartición.

Baldintza horiek bete ezean, ez da onartuko irakasgaia, eta ezin izango da baimena berriro eskatu harik eta bi ikasturte igaro arte irakasgaia eman barik.

En caso de no cumplir con los requisitos anteriores la asignatura no será admitida ni podrá ser solicitada de nuevo hasta que hayan pasado dos cursos sin ser impartida.

Irakasgaiak jarraitzeko adina ikasle matrikulatuta egon arren sailak baja ematen badio bere erabakiz, ezin izango da irakasgai hori berriro eskatu harik eta bi ikasturte igaro arte bera eman barik.

Cuando teniendo las matriculaciones necesarias para su continuidad, la asignatura sea dada de baja de manera voluntaria por el Departamento, dicha asignatura no podrá ser solicitada de nuevo hasta que hayan pasado dos cursos sin ser impartida.

### 4.1. Irakasgai blokeak

Bloke bakoitzak zenbait irakasgai dituenez, beharrezkoa izango da ikastegiak urtero aurkeztea eskaera, inplikatutako sailen onespenarekin, I. ERANSKINA betez eta bidaliz.

Blokeko irakasgairen baterako baimena ematen ez bada, blokeak bloke izaten jarraitzeko beharrezkoa izango da gutxienez hiru irakasgai edo hamazortzi kreditu izatea baimenari dagokion ikasturtean. Bestela, blokeko irakasgaiak irakasgai *solte* bilakatuko dira.

### 4.1. Bloques de asignaturas

Dado que la composición de los bloques implica a varias asignaturas, será necesario que el Centro, con la conformidad del/de los departamento/s implicado/s, renueve cada curso su solicitud mediante la cumplimentación y envío del ANEXO I.

Cuando alguna asignatura del bloque no sea autorizada, dicho bloque seguirá considerándose como tal sólo en el caso de que mantenga un mínimo de 3 asignaturas o de 18 créditos durante el curso para el que esta convocatoria autoriza su impartición. En caso contrario, las asignaturas que lo componen pasarán a la categoría de asignaturas *independientes*.

### 4.2. Irakasgai solteak

Gutxieneko matrikula kopurua izan duten irakasgai solteak ez dira berriro eskatu behar izango, errektoreordetzak automatikoki baimenduko baititu.

Arrazoiren bategatik irakasgai bat emateari utzi bazaio deialdi honen aurreko ikasturteetan, aipatutako baldintzak betetzen baditu, berriz ere eskatu behar izango da.

### 4.2. Asignaturas independientes

Las asignaturas independientes que hayan cumplido con la matriculación mínima no deberán ser solicitadas de nuevo, dado que se autorizarán automáticamente por parte de este Vicerrectorado.

Aquella asignatura que, por cualquier motivo, haya dejado de impartirse en cualquiera de los cursos anteriores al de la presente convocatoria y siempre que cumpla con los requisitos ya mencionados, deberá ser solicitada de nuevo.

## 5. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA ERA

2020/2021 ikasturtean irakasgaiak hizkuntza ez-ofizialetan (ingelesez edo frantsesez) emateko eskaerak 2020ko urtarrilaren 7tik 31ra bitartean aurkeztu ahal izango dira. Ez da onartuko epez kanpo egindako eskaerarik.

Eskaera bidali beharko da UPV/EHUren barne

## 5. PLAZO Y FORMA DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES DE AUTORIZACIÓN

El plazo para realizar la solicitud de autorización de docencia en lenguas no oficiales (inglés o francés) para el curso 2020/2021 será del 7 de enero al 31 de enero de 2020. No se admitirán solicitudes realizadas fuera de plazo.

La solicitud deberá enviarse por correo interno de la

postaz edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako moduak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16. art. eta azken xedapenetatik 7.a, urriaren 1eko BOE). Eskaera helbide honetara bidali behar da: Eleaniztasun Unitatea, Arabako Campuseko Errektoreordetza, Izardui Komandantea 2, 01006 Gasteiz) eta hau jarri: «2020/2021ean hizkuntza ez-ofizialetan irakasteko baimena».

Gainera, eskaerak posta elektronikoz bidali beharko dira helbide honetara: eleanizt@ehu.eus.

Eskaerak nahitaez bidali behar dira aipatutako bi bideetatik.

## 6. BAIMENEN EBAZPENA

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak erabaki proposamen bat argitaratuko du baimendutako eta ez baimendutako irakasgaiekin, eta iragarki oholetan argitaratuko du, bai eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren web orrian ere, bertako eleaniztasun atalean (https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-eskaintza).

Hamar egun baliodunekoo epea egongo da proposamenari buruzko alegazioak egiteko. Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak ebatziko ditu alegaziook, eta horren ostean behin betiko ebazpena emango du, eta hori argitaratuko da iragarki oholetan eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren web orrian, eleaniztasun atalean (https://www.ehu.eus/eu/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-eskaintza).

Irakasgaiak emateko baimenari buruzko ebazpenak administrazio bidea amaitzen du. Hala ere, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeari, hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (123. artikulua eta hurrengoak); bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke zuzenean administrazioarekiko

UPV/EHU o por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común , así como en su disposición final 7ª (BOE de 1 de octubre ) e irá dirigida a UP - Unidad de Plurilingüismo, Edificio Vicerrectorado del Campus de Álava, Comandante Izarduy 2, 01006 Vitoria-Gasteiz, indicando que corresponde a la “Autorización de docencia en lenguas no oficiales 2020/2021”.

Además, las solicitudes deberán remitirse por correo electrónico a la dirección: pluriling@ehu.eus.

Será estrictamente necesario enviar las solicitudes por los dos cauces mencionados.

## 6. RESOLUCIÓN DE LAS AUTORIZACIONES

El Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales publicará una propuesta de resolución con las asignaturas autorizadas y las no autorizadas, de la que se dará noticia en los tablones de anuncios, y podrá ser consultada en la página web del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales en el apartado de Plurilingüismo: https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-eskaintza

En el plazo de 10 días hábiles podrán realizarse alegaciones a la propuesta, que serán resueltas por la Vicerrectora de Coordinación y Relaciones Internacionales tras lo cual el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales emitirá una resolución definitiva que será publicada en los tablones de anuncios y en la web del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales en el apartado de Plurilinguismo: https://www.ehu.eus/es/web/nazioarteko-harremanak/eleaniztasun-plana-eskaintza

La Resolución mediante la que se autoricen las asignaturas a impartir pone fin a la vía administrativa. No obstante, contra la misma cabe interponer recurso potestativo de reposición ante la Vicerrectora de Coordinación y Relaciones Internacionales en el plazo de un mes, contado a partir del día siguiente al de su publicación en la Web de la UPV/EHU, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común, o directamente recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao en el plazo de dos meses,

auzietako Bilboko epaitegietan bi hilabeteko epean, erabakia UPV/EHUko webgune ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen arabera (10.1.a eta 46.1 artikuluak).

contados desde el día siguiente al de su publicación en la Web oficial de la UPV/EHU, conforme a lo establecido en los artículos 10.1.a y 46.1 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

## 7. IRAKASGAIEI ALTA EMATEA

Behin Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak deialdia ebatzi ondoren, ikastegiek grabatu egin beharko dituzte baimendutako hizkuntza ez-ofizialetako irakasgai guztietako taldeak.

Ikastegiek behar diren neurriak hartuko dituzte hizkuntza ez-ofizialetako taldeen ordutegiak eta euskarazko eta gaztelaniazko taldeenak bateragarriak izan daitezen.

Eskolak hizkuntza ez-ofizialetan jasoko dituzten taldeen ordutegiak eta gaztelaniazko eta euskarazko taldeenak batera argitaratu beharko dira.

Hautazko irakasgaien kasuan, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren erabakia behin-behinekoa izango da, harik eta baimendutako irakasgaia sartuta dagoen graduko eskaintza ofizialki zehazten den arte.

**Behin ikasturtea hasita, eta ikasturteko edo lauhilekoko hirugarren astearen hasierarako taldean gutxienez hamar ikasle matrikulatu ez badira, errektoreordetza honek egoera aztertu eta baja eman ahal izango dio hizkuntza ez-ofizialeko taldeari.**

## 7. ALTA DE LAS ASIGNATURAS

Una vez resuelta la convocatoria por parte del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales, los centros grabarán los grupos en lenguas no oficiales de todas las asignaturas autorizadas por el mismo.

Los centros tomarán las medidas necesarias para que los horarios de los grupos de lenguas no oficiales sean compatibles con los de euskera y castellano.

Los horarios de los grupos de lenguas no oficiales deberán hacerse públicos en el mismo momento que los de los grupos de castellano y euskera.

En el caso de asignaturas de carácter optativo, la resolución por parte del Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales se considerará provisional, hasta que se determine oficialmente la oferta de optatividad del/de los Grado(s) al/a los que pertenezca la asignatura.

**Una vez iniciado el curso lectivo y siempre y cuando al inicio de la tercera semana de curso o cuatrimestre, el grupo no alcance la matrícula mínima de 10, este Vicerrectorado, tras analizar la situación, podrá dar de baja el grupo en lengua no oficial.**

## 8. IRAKASGAIAK ALDATZEKO ETA BAJA EMATEKO ESKAERAK

Irakasgaiei behin alta emanda, baimendutako irakasgaien eskaintzan eragina duen aldaketa edo baja eskaera aurkezteko, ikastegiak III. ERANSKINA bete beharko du, sailaren onespenarekin, eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeari bidali beharko dio.

Eskaera nahitaez bete beharko da, berdin da irakasgaia blokekoa den edo soltea.

## 8. SOLICITUD DE CAMBIOS Y BAJAS DE LAS ASIGNATURAS

Una vez dadas de alta, la solicitud de cambios o de bajas que afecte a la oferta de las asignaturas autorizadas, se realizará mediante la cumplimentación obligatoria del ANEXO III por parte del Centro, con el acuerdo del Departamento, que deberá ser enviado al Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales,

Dicha solicitud deberá realizarse obligatoriamente tanto si se trata de una asignatura perteneciente a un bloque como independiente.

## 9. ALDI BATERAKO PLAZEN ESKAERA

## 9. SOLICITUD DE PLAZAS TRANSITORIAS CON

## LIBERAZIOAREN KARGURA

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak deialdian onartutako irakasgairen bat ematen duten sailei aldi baterako irakasle-ikertzaile plaza bat eman ahalko die irakasgaiaren irakasle arduradunak euskaraz edo gaztelaniaz eman gabe utziko dituen eskolak emateko. Horrenbestez, eskatzen den plaza ezin izango da erabili baimendutako irakasgaia hirugarren hizkuntza batean emateko.

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzari aldi baterako plazak eskatzeko 9. eranskina bete beharko da (ordezkapena), eta «arrazoia» atalean «eleaniztasun planeko irakasgaiak ematea» jarriz.

Aldi baterako plaza eskatzeko, sailak ematen dituen irakasgaiak bloke batean egon beharko dira, eta blokeak **gutxienez izan beharko ditu 30 kreditu (edo lehen ikasturtea bada, gutxienez hiru irakasgai edo hemezortzi kreditu)**, eta **irakasgai horietatik gehienez bat egon ahal izango da baimenduta ikasketa planean hizkuntza ofizialetan eta ingelesez edo frantsesez.**

Sailek ikasturtetik ikasturtera egin beharko dute eskaera, aldi baterako plaza gehigarriak ez baitira automatikoki berritzen.

Deialdi honetako gastu muga aurrekontuaren araberakoa izango da, eta gerta liteke baldintza guztiak betetzen dituzten eskaerek finantzaziorik ez lortzea.

Aldi baterako plaza behin emanda, aldaketarik balego irakasgai hari dago(z)kion bloke(et)an, errektoreordetzak berriz aztertuko ditu sailaren premiak, eta, ondorioen arabera, plaza mantendu ahal izango da ala ez. Sailak erabakitzen badu baja ematea irakasgai bati edo gehiagori gutxieneko ikasle kopurua matrikulatuta egon arren, automatikoki kenduko zaio emandako plaza.

Aldi baterako plaza lehenengoz eman denetik lau ikasturte igarota, sailak bere baliabideez eman beharko ditu irakasgaiak, eta, hortaz, ezin izango du aldi baterako beste plazarik eskatu, non eta ez duen irakasgai berririk eskaintzen, deialdi honetan ezarritako irizpideak betez.

## CARGO A LA LIBERACIÓN

El Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales podrá conceder a los departamentos que impartan alguna asignatura/s de bloque admitida/s en la convocatoria, la dotación adicional de una plaza transitoria de PDI para cubrir la docencia en euskera o castellano que deja de impartir el/la profesor/a encargado de tal asignatura. En este sentido, la plaza a solicitar no se podrá utilizar para impartir en un tercer idioma la asignatura autorizada.

La solicitud de plazas transitorias deberá realizarse ante el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales mediante el Anexo 9 para la cobertura transitoria de plaza (sustitución) indicando claramente en el apartado "Motivo" "impartición asignatura/s de plurilingüismo".

Para solicitar una plaza transitoria, la(s) asignatura(s) que imparta el departamento deberá/n formar parte de un bloque de asignaturas **que sume al menos 30 créditos (o si es su primer curso como bloque un mínimo de 3 asignaturas o 18 créditos)** y de las cuales, **un máximo de una asignatura podrá estar autorizada en el plan de estudios en idiomas oficiales e inglés o francés.**

La solicitud de estas plazas por parte de los departamentos debe ser realizada cada curso ya que la renovación de la dotación adicional de plazas transitorias no es automática.

El límite de gasto para la presente convocatoria quedará sujeto al presupuesto disponible, pudiendo no obtener financiación solicitudes que cumplan con todos los requisitos.

Una vez concedida la plaza transitoria, si se dieran cambios en la constitución del bloque o bloques por los cuales se concedió, el Vicerrectorado procederá a la rebaremación de las necesidades del departamento, lo cual podrá afectar a la plaza transitoria concedida. Si el Departamento decide dar de baja alguna/s asignatura/s a pesar de cumplir con el número mínimo de alumnado matriculado, se procederá a la anulación inmediata de la plaza concedida.

Transcurridos cuatro cursos académicos desde la concesión por primera vez de la plaza transitoria, el departamento deberá hacerse cargo con recursos propios de la impartición de las asignaturas, por lo que no podrá solicitar de nuevo una plaza transitoria si no oferta nuevas asignaturas que cumplan los criterios expuestos en esta convocatoria.

## 9.1. Eskarien lehenespena

Plaza gehigarria ematerakoan, eskaerak ordenatuko dira honako irizpide hauen arabera:

Lehentasuna emango zaie 2019/20 ikasturtean baldintza hauek betetzen dituzten eskaerei, deialdi honetako aurrekontuarekin betetzeko modukoak badira:

- Blokeak kreditu gehiago izatea. 2017/18 ikasturteaz geroztik emandako irakasgaien kredituak baino ez dira zenbatuko. Ez dira zenbatuko ikasturte hori baino lehenagoko irakasgaien kredituak, ez eta ikasketa planean hizkuntza ofizialetan edo ingelesez edo frantsesez baimenduta agertzen direnak.
- Plaza eskatzen den ikastegian sailak kreditu gehiago ematea ingelesez edo frantsesez, kontuan hartu barik aurreko paragrafoan aipatutako irakasgaien kredituak.
- Saileko irakasleen egoera ikastegian eta arloan. Zenbat eta soberakin gutxiago, orduan eta puntuazio handiagoa.
- Ikasle gehiago edukitzea matrikulaturik plaza eskatzen den ikastegian sailak ingelesez edo frantsesez ematen dituen irakasgaietan.

Beharrezkoa izanez gero, kontuan hartuko dira blokeen ezaugarriak eta lehentasuna emango zaie lauhileko bereko eta azken mailetako irakasgaiek osatutakoei.

Era berean, gaitzetsi ahal izango da 2019/20 ikasturtean sailak lauhilekoaren hasieran baja eman ez izana hamar ikasle baino gutxiago matrikulatu diren irakasgaiei.

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak baimendutako irakasgaiak eman egin beharko dira sailak horretarako ahalmena duen neurrian, alde batera utzirik sailari aldi baterako plaza eman zaion ala ez.

## 9.2 Eskaerak aurkezteko epea eta era

## 9.1. Priorización de las solicitudes

A la hora de conceder la dotación adicional, las solicitudes se ordenarán teniendo en cuenta los criterios que se exponen a continuación.

Se dará prioridad a aquellas solicitudes que, siendo susceptibles de ser atendidas habida cuenta del presupuesto disponible para la ejecución de la presente convocatoria, cumplan con los siguientes requisitos en el curso 2019/2020:

- Mayor número de créditos en el bloque. Se contabilizarán solamente los créditos de las asignaturas impartidas desde el curso 2017/2018. No se computarán los créditos de asignaturas anteriores a ese curso ni de aquellas que estén autorizadas en el plan de estudios en idiomas oficiales e inglés o francés.
- Mayor número de créditos impartidos por el departamento en inglés y/o francés en el centro para el que se solicita la plaza exceptuando del cómputo los créditos de las asignaturas mencionadas en el párrafo anterior.
- Situación docente del departamento en el centro y área. A menor holgura mayor puntuación.
- Mayor número de alumnado matriculado en las asignaturas impartidas por el Departamento en inglés o francés, en el centro para el que se solicita la plaza.

En caso de ser necesario, se tendrán en cuenta las características de los bloques, dando prioridad a aquellos compuestos por asignaturas de un mismo cuatrimestre y de últimos cursos.

Asimismo, podrá ser valorado de manera negativa el hecho de que, en el curso 2019/20, el Departamento no haya solicitado al inicio del cuatrimestre la baja de asignatura/s cuya matriculación haya sido inferior a 10.

Las asignaturas autorizadas por el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales han de ser impartidas, con independencia de la concesión o no de una plaza transitoria, siempre que el Departamento tenga capacidad para ello.

## 9.2. Plazo y forma de presentación

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzari aldi baterako plazak eskatzeko Irakasleen Kudeaketarako Araudiko 9. eranskina bete beharko da (ordezkapena) 2020ko urtarrilaren 7tik 31ra, «arrazoia» atalean «Eleaniztasun planeko irakasgaiak ematea» jarriz.

La solicitud de plazas transitorias deberá realizarse ante el Vicerrectorado de Coordinación y Relaciones Internacionales mediante el Anexo 9 para la cobertura transitoria de plaza (sustitución) del Reglamento de Gestión de Profesorado del 7 de enero al 31 de enero de 2020, indicando claramente en el apartado "Motivo" "impartición asignatura/s de plurilingüismo".

Eskaera bidali beharko da UPV/EHUren barne postaz edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako moduak erabiliz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16. art. eta azken xedapenetatik 7.a, urriaren 1eko BOE). Eskaera helbide honetara bidali behar da: Eleaniztasun Atala, Arabako Campuseko Errektoreordetza, Izardui Komandantea 2, 01006 Gasteiz) eta hau jarri: «aldi baterako plazen eskaera, eleaniztasun planeko irakasgaiak emateko».

La solicitud deberá enviarse por correo interno de la UPV/EHU o por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común , así como en su disposición final 7ª (BOE de 1 de octubre ) e irá dirigida a UP - Unidad de Plurilingüismo, Edificio Vicerrectorado del Campus de Álava, Comandante Izarduy 2, 01006 Vitoria-Gasteiz indicando que corresponde a la convocatoria "Solicitud plazas transitorias impartición asignaturas plurilingüismo"

Gainera, eskaerak posta elektronikoz ere bidali beharko dira helbide honetara: eleanizt@ehu.eus.

Además, las solicitudes deberán remitirse por correo electrónico a la dirección: pluriling@ehu.eus.

Eskaerak nahitaez bidali behar dira aipatutako bi bideetatik.

Será estrictamente necesario enviar las solicitudes por los dos cauces mencionados.

Leioan, 2019ko abenduaren 20an

En Leioa, a 20 de diciembre de 2019

KOORDINAZIOAREN ETA NAZIOARTEKO HARREMANEN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE COORDINACIÓN Y RELACIONES INTERNACIONALES
eman ta zabal zazu
UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Marta Barandiaran Landin
Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordea
Vicerrectora de Coordinación y Relaciones Internacionales